



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/11/19

Ibilpide kulturala Koltza menditik, Euskadin Gerra Zibilean izandako azken burrukaldien aztarnen bila

1937ko udan Gerra Zibilak azkenengo burrukaldiak bizi ebazan Euskadiko frontean. Gudariak eta euskal milizianoak Koltza-Alen lerroan egozan, indar frankistei aurre egiteko asmoz. Gaur, Enkarterriko Museoak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek, Enkarterri. 1937 eta Alboan alkarteen laguntzagaz, ibilpide kulturala antolatu dabe, orain 80 urte Euskadin Gerra Zibilak izan eban historia eta gerra horretako azkenengo burrukaldiak egin ziran lekuak ezagutzeko.

Ibilpide kulturalak harritura itzi ditu “Koltzako gudua” izenez ezagutzen dana egin zan mendikatera joan diran pertsona guztiak. Indar frankistek Balmaseda eskuratu eta gero, leku horretan ezarri zan gerrako azkenengo frontea (Koltza-Alen). Ibilpidean, bisitariak, gidari eta historialari adituek lagunduta, oraindino trintxeren aztarnak kontserbetan dituan inguruko hainbat puntutan gelditu dira.

Ibilpideari hasiera emoteko, martira arte Enkarterriko Museoan(Abellaneda) ikusi ahal izango dan “Enkarterri. 1937. Gerra zibilaren azken hilebeteak Euskadin” erakusketa bisitauko da. Horren ostean, hainbat autobusek Koltza mendiaren behekaldera (Balmaseda) eroan ditue bisitariak, “La Porqueriza” ingurura, hain zuzen be, eta bertan hasi da Koltza mendiaren tontorrerako oinezko ibilpidea. Bertan egoan armada nazionala. Bertatik, Terreroseko tontoretik, euzko gudarostea egoan lekura joan dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
19/11/2017

Recorrido cultural por el Kolitza en busca de restos de las últimas batallas de la Guerra Civil en Euskadi

Durante el verano de 2017 la Guerra Civil daba sus últimos coletazos en el frente vasco. Gudaris y milicianos vascos se apostaban en la línea Kolitza-Alen para intentar detener el avance de las tropas franquistas. Hoy, el Museo de las Encartaciones y las Juntas Generales de Bizkaia, con la colaboración de la Asociación Enkarterri.1937 y Alboan, han organizado un recorrido cultural para descubrir la historia y los lugares en donde hace 80 años se libró la última batalla bélica de la Guerra Civil en Euskadi.

La ruta cultural ha sorprendido a las decenas de personas que han recorrido la cadena montañesa en donde se libró la que es conocida como “la batalla del Kolitza”. Fue en este lugar, tras la ocupación de Balmaseda por las tropas franquistas, donde quedó establecido el último frente de guerra (Kolitza-Alen). A lo largo de la ruta, los visitantes, acompañados de expertos guías e historiadores, se han detenido en diferentes puntos de la zona, donde todavía se conservan restos de trincheras.

El itinerario ha comenzado con la visita a la exposición “Enkarterri. 1937. Los últimos meses de la Guerra Civil en Euskadi” que se puede ver hasta el mes de marzo en el Museo de Las Encartaciones (Abellaneda). Posteriormente, varios autobuses han trasladado a las faldas del monte Kolitza (Balmaseda) a los asistentes, concretamente a la zona “La Porqueriza”, en donde ha comenzado la ruta a pie hasta la cima del monte Kolitza, donde se situaba el ejército nacional, y de ahí, monte a través, a la cima del Terreros, donde se ubicaba el ejército vasco.